

Gure elkartearen xede- publikoa nagusiki familiak izango dira. Baina, familiak ez ezik, ikastetxeak, tutoreak, udaletxea, hezitzaile ikasketak burutzen ari direnak ere izango dira. Familiez haratagoko pertsonaegana iritsi nahi dugu, zenbait kasutan formakuntza interesgarriak eta lagungarriak izan daitezkelako hauentzat ere, hau d, aiton-amon, izeba-osaba, zaintzaile edota lagunentzat. Azken finean zuzenki edo zeharka gizarte osoak baitu haurraren heziketan eskuartze edota harremana bizitzako unereren batean.

Izan ere, gure elkartean edozein adineko pertsonekin lan egingo dugu, hau da, interesa duen edonorrekin. Horrez gain, gu haur hezitzaileak gara. Hortaz, gure baloreen artean elkartasuna garrantzitsuenetariko bat da. Horri lotuta, errespetuan, bata besteari laguntzean zein dibertsitatean oinarritzen gara.

Gaur egun, familiengan izugarritzko interesa ikusten ari gara beraien haurren heziketan, hau da, tutoreek heziketa egoki bat emateko ahalegina egiteko nahi eta gogoak dituztela. Hau hala izanik, beraien ustez, ikastetxea da heziketa zentroa baina beraiek ere konstante dira ikastetxeetatik kanpo haurren heziketaren parte handi kolokan jartzen dela eta ikastetxetik kanpo kalean eta baita familian ere erreferente asko dituztela, horrek haurren heziketan eragina izanik. Horregatik, gure elkartea familia hauentzat erakargarria, baliagarria eta gustuko ingurua izango da, heziketa hobea eman ahal izateko baliabideak lortuko dituztelarik.

Aurreko guztia laburbilduz, familiei, hots, izeba-osaba, zaintzaile, aiton-amon, lagun eta haurrekin inguratutako edozein tutoreri formakuntza interesgarri eta kalitatezkoak eskainiko dizkizuegu haurrak etorkizun hobe bat izan dezaten.

